

Eibarko Udalak teknologia berrien ikastaroa antolatu du lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat eta gabonetako opor garaian izango da. Gcompris softwarearen bitartez animazio bat sortuko dute

Tramitatzailea: Euskara-Kultura

Hartzaileak: lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat.

Taldeak: 4 talde.

Ikastaroaren prezioa: 6€ (Eibarren erroldatuak)
12€ (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Nork emango du: Itzamna akademiak

Non eta noiz: Haur Liburutegia. Portalea. (Ordutegia matrikula orrian aukeratu)

Datak: 1 txanda: abenduak 26, 27 eta 28

2 txanda: urtarrilak 2, 3 eta 4

11:00etatik 12:00etara ; 12:00etatik 13:00etara.

Ikasle kopurua: gutxienez 8 ikasle eta gehienez 16 ikasle

Ikastaroaren hizkuntza: euskeraz.

Eskaera egiteko epea:

2013ko abenduaren 2tik 16ra (biak barne)

Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.net, eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen **NAN**aren edo balio bereko dokumenturen baten kopia.

NAN dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.net), **2013ko abenduaren 18an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2013ko abenduaren 17an 14:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Lau zerrenda egongo dira, ordutegi bakoitzeko bat. Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat ateratzen da. Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horren jarraian dauden zenbakiak dituztenak izango dira ikastarorako aukeratuak plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **2013ko abenduaren 19tik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: Talde batean matrikularako izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldean izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldearen ikasle-kopuruz osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz.

Informazio gehiago: 943 708 437